

ASKALTZEKO ORDUA...

Askari osasuntsu batek fruta freskoa izan behar du. Gaurko askarian azokan erosi dituzten marrubiak eta esnea kakaoarekin hartuko dute.

1. Zeren baliokide da kilo erdi bat marrubi?

- A. 500 gramo.
- B. 0,5 gramo.
- C. 250 gramo.
- D. 50 gramo.



2. Lorategian, Markelek marrubi landareetan fotosintesi prozesua gertatzen dela azaldu dio Naiari. Ondorengo esaldiek fotosintesi prozesua zertan datzan azaltzen dute baina desordenatuta daude. Ordenatu itzazu 1etik 4ra zenbakiak idatziz.

	Zenbakia
Izerdi landua landarearen atal guztietara hodian bitartez iristen da.	
Sustraietan gatz mineralak uretan disolbatzen dira eta izerdi landugabea sortzen da hodi zurkaretatik hostoetaraino igotzen dena.	
Landareek sustraietako ile xurgatzaileetatik lurrean dauden mineralak eta ura xurgatzen dute.	
Izerdi landugabea hostoetara iristen denean, airearen oxigenoa eta eguzki energia behar duten erreakzio kimiko batzuen bitartez, izerdi landua bihurtzen da CO ₂ askatuz.	

3. Hauetako zein da nahaste homogenea?

- A. Marrubiak esnegainarekin.
- B. Moldeko ogia txokolatearekin.
- C. Esnea kakaoarekin.
- D. Marrubiak txokolatearekin.

4. Markeli esnegaina ez zaio batere gustatzen eta aitak prestatutako kakao irabiatuan esnegaina aurkitu du. Zer metodo erabiliko du bereizteko?

- A. Lurrunketa.
- B. Destilazioa.
- C. Iragazketa.
- D. Dekantazio

5. Naiak eta Markelek dutxa hartu behar dute. Hurrengo aholkuetako zeintzuk saihesten dituzte etxeko komunean gertatzen diren elektrizitate istripuak? Adierazi X batez onak ala txarrak diren:

	Aholku ONA	Aholku TXARRA
Kablea kaltetuta duten tresna elektrikoak erabiltzea.		
Tresnak deskonektatzeko kabletik ez heltzea.		
Tresna elektrikoak erabiltzean erabat lehor egotea.	I	
Oinutsik zaudela, tresna elektrikoak erabiltzea.		
Tresna elektrikoak bainuontzi ondoan erabiltzea.		

6. Dutzatu ondoren, sofán eseri dira mugikorrarekin txatean eta sare sozialetan aritzeko. Hurrengo aholkuetako zeintzuk dira sare sozialetan aritzeko eta Interneten ibiltzeko egokiak? Adierazi X batez dagokiona.

	Aholku ZUZENA	Aholku OKERRA
Egiten duzun guztia partekatzea, horretarako dira sare sozialak.		
Pasahitza errezago gogoratzearen, Interneteko zerbitzu ezberdinetan sartzeko pasahitz bera erabiltzea.		
Informazioa aukeratzeko inzipide bat izatea.		
Sare sozial askotan izena ematea, njundu zabalean ezagutu gaitzaten.		
Antibirus bat erabiltzea eta aplikazioak, programak eta antibirusa eguneratuta mantentzea.		

7. Oheratu baino lehen, aitak historian zehar izan diren zientzia eta teknologiaren aurrerapenez hitz egin die. Zein da asmakizun hauen orden kronologiko zuzena?

- A.** Gorpila, bonbilla, inprenta eta Internet.
- B.** Gorpila, inprenta, bonbilla eta Internet.
- C.** Inprenta, gorpila, bonbilla eta Internet.
- D.** Bonbilla, gorpila, inprenta eta Internet.

NATURARA IRTEERA

Gaur, zuen irakasleak luze antolatzen aritu zareten kanpaldia egiteko eguna iritsi dela esan dizue. Oraingo honetan prestaketa guztiak zuek egin dituzue.

Irakasleek Nafarroan zehar eta bizikletaz joan behar zenutela esan zizueten. Hau entzunda, gelakide guztiak lanean hasi zineten.

8. Kirolak onurak ekartzen dizkio gure osasunari. Zer onura ekar dezake?

- A.** Gure pisua kontrolatzea eta bihotza eta giharrek indartzea.
- B.** Naturaz gozatzea.
- C.** Neuronen arteko konexioa indartzea.
- D.** Teknologi berriak gutxiago erabiltzea.

9. Zuen gelakide batek autoz joan nahi du, baina hobe da denok batera eta bizikletaz joatea. Idatz itzazu zuen gelakidea konbentzitzeko BI argudio.


1.-

2.-

IBILALDIA

Hurrengo goizean esnatu zarete eta egun osoko ibilaldia prestatu duzue. Inguruko mendi batera igo zarete animaliak eta landareak ezagutzeko. Horretarako, argazkiak atera dituzue.

10. Ibilbidean zehar Peruk honako animalia hauei atera dizkie argazkiak.



Sailkatu goian izendatuta dauden zazpi animaliak 1etik 7ra zenbaki bat jarriz:

	Zenbakia	
Okila		(1) Intsektua.
Kamaleoia		(2) Ugaztuna.
Igela		(3) Narrastia.
Igaraba		(4) Krustazea.
Karramarroa		(5) Hegazia.
Amuarraina		(6) Arraina.
Sorgin-orratza		(7) Anfibia.

11. Unai ere argazkiak atera dizkio animalia honi. Badakizu zer sailetakoa den?

- A. Birusa.
- B. Bakterioa.
- C. Organismo zelulaniztuna.
- D. Onddoa.



13. Irakasleak esan dizue animaliak bost erreinu desberdinetan sailkatzen direla. Lotu ezazu erreinu bakoitza bere ezaugarriarekin (1etik 5era).

14. Zein bi aholku emango zenizkioke zure lagun bati ingurumena zaintzeko?

1.-

2.-

17. Hondakinak behar bezala sailkatu ondoren, kanpineko erreka ura oso zikina dagoela konturatu zarete. Nahasketa heterogeneoko gaiak bereizteko zein metodo erabiliko duzue garbitzeko?

- A. Lurrunketa.
- B. Destilazioa.
- C. Iragazketa.
- D. Dekantazioa.

